

Romo eta Areeta berriro ere **zulo batek bereiztuta? EAJ-PNVrekin ez**

Orain dela gutxi, Getxoko Udaleko PSE-EE-ko bozeramaileak, Almansa jaunak, oraingoan talde popularraren bozeramaile lanak ere betez, komunikabideei azaldu zien talde biek proposamen bat egin nahi dutela Areetako Geltoki Plazari buruz. Proposamen horren arabera, plazaren azpitik doan erreka estali gabe geratuko da, azterlan bat egin ostean.

Proposamen hau ez da berria. Talde biek maiatzaren 27ko tokiko hauteskundeetarako aurkeztu zituzten hauteskunde programetan ageri baita. PSE-EE-k, bere aldetik, aukera hori aztertzea aipatzen du programan. PP, ordea, argiagoa da: 7. puntuari, 13. atalean, "Nuestros grandes proyectos" izenekoan, hauxe dakar: ***"Descubrir el río Gobela y adecuación del entorno de la plaza de Las Arenas"***.

Une hauetan proposamena aurkeztea, beraz, koherentzia handiko ekintza da.

Planteamendu hau gauzatuko balitz, ubidea estaldurarik gabe geratuko litzateke Lamiakoren mugatik (Leioa) hona, aparkalekua eta plaza zeharkatuz, Errekagane kaleraino (hor estali gabe dago jada).

Proposamena zilegia eta bidezkoa da. Baina baita zentzugabea ere, nire uste apalean.

Romo eta Areetako bizilagun askok gogoan izango dute, nik bezala, nolako egoeran zeuden bi auzo hauek metroa lurperatu aurretik, hau da, tren lurgainetik zebilenean, eta Lamiakotik zetorrenean, gaur egun plazak eta ondoko aparkalekuak betetzen duten espazioa zeharkatuz.

Orduan, oker ez banago, bi auzo hauek hiru lotura baino ez zeuzkaten: trenbideko pasabidea, langak eta lurpeko pasabide txiki bat, urrunxeago. Lotura eskasia hau nahiko kaltegarria zen bizilagunentzat, ikuspegi guztietatik.

Bada, PP-PSE-EE-k eginiko proposamenak, berez, bi auzoak berriro bereiztea proposatzen du. Oraingoan, ordea, auzoak ez ditu trenbideak bereiztuko, lehen bezala, baizik eta urak, errekarri estaldura kentzearen ondorioz.

Proposamen hau gauzatuz gero, ziur aski, plaza ezin izango litzateke erabili, espazio txikiegia geratuko litzatekeelako hutsik, Kultur Etxearen egitarauko jarduerak hartzeko, jaialdiekin eta gainerako ekitaldiekin.

Planteamendua erabat zilegia eta zuzena da, lehen esan dudanez, eta horregatik getxotarren ezagutu egin behar dute, batez ere hauteskunde ostean talde politiko biek berretsi egin dutelako. Eta ez dezala inork aipatu gai honi buruz epaileek emandako epaia proposamen hau justifikatzeko, epaiak ez baitu inola ere adierazten legez beharrezkoa denik plaza horretan erreka estali gabe joan dadila.

Errealitate horren aurrean, gure proposamena, hau da, **EAJ-PNV gobernu taldearen proposamena**, erabat ezberdina da. Hauteskundeetan aurkeztu genuen eta udal botorik gehien jaso duen programan ageri da (www.ilandea.eu - **Areeta - Erromoko Geltoki plazaren berrantolatze lanaren proiektua**).

Gure proposamena batzea da, ez bereiztea, gehitzea eta ez zatitzea, ahaleginak eta ekimenak bateratzea, eta ez auzoak bereiztea eta urruntzea. Gure planteamenduan, plazaren ondoko eta Santa Eugenia kalearen ondoko aparkalekuan udal eraikin bat eraikiko genuke, zentrikoa, modernoa eta metrotik hurbil. Eraikin horrek, betiere ubidearekiko bete beharreko legeak errespetatuz,

Areetak merkatuan eta Romoko Santa Eugenia Plazan dauden udal zerbitzuak bere barruan hartuko eta bultzatuko lituzke, instalazio berri eta modernoek bidez. Horrela, gainera, auzo biotako kultur eta gizarte elkarteentzat espazio berriak sortuko lirateke.

Finean, Areetan eta Romon, kirol azpiegitura (Gobela kiroldegia) eta gizarte azpiegitura (Nagusien Etxea birgaitzen denean egingo dena) ez ezik, udal zerbitzuentzat eta elkarteentzat behar diren azpiegitura berri eta modernoak jarriko lirateke.

Ez dut ahaztu Areetako Geltokiko Plazak konponketa batzuk behar dituela. Eraikinarekin batera, plaza leku atseginagoa izan dadila eta erabiltzaileen premia eta beharrezkoak ondo asetzen lortuko lukete konponketa horiek.

Horretarako, plaza hau nolakoa izango den zehazteko, herritarrek parte hartzeko prozesua martxan jarriko dugu, bizilagunek eta gainerako eragileek parte har dezaten. Betiere, eta azaldutakoa baztertu gabe, gure hauteskunde egitarauan gai honetaz azaldutako ideia batzuk gogoratu nahi nituzke.

Gure udalerrian estalitako espazio publikoak prestatzeaz ari naiz, baita ibilbide estaliak ere, herritarrek gure kale eta plazak gozatu ahal izateko eguraldi txarra dagoenean, batez ere negu luzean, inguruko merkataritza-zentroetara jo behar izan gabe.

Finean, gure herria herri bizia izatea gura dugu, baita udazkenean eta neguan ere. Horretarako, espazio publiko egokiak prestatu behar dira.

Hori guztia, gainera, bateragarria da Kultur Etxeak bere egitarauan Geltoki Plazan egiten dituen jarduerak mantentzearekin. Horretarako ideia zehatzak dauzkagu, arkitekto profesionalek emandakoak. Ideia horiek lantzen ari gara eta unea iristen denean aurkeztuko ditugu, eztabaidatzeko eta hausnartzeko. Ideia horiei esker, gainera, erantzun egoki eta alternatiboa eskainiko diogu espazio horretako karpei ematen zaie erabilerari. Halere, prozesu honek gogoeta-denbora bat behar du alde aurretik, gure proposamenak lantzeko eta herritarrei eta gainerako talde politikoei aurkezteko. Izan ere udalerrarentzat estrategikoa den leku batez ari gara, eta honelako gaietan erantzukizun eta kontu handia izan behar dugu denok. Zentzu horretan, gogorarazi nahi dut gobernu talde honek hiru hilabete eskas daramatzala udalean. Itxaron dezagun beraz.

Imanol Landa Jauregi.
Getxoko Alkatea.